

EUSKERA, HIRE LAGUNA!

Guziok ongi badakigu, aberri-izkuntza dela abenda bakoitzaren zeingirik argiena, beste abenda guzietatik bereizten duena. Abenda batek berea ez den izkuntza hartzen ba-du, arriskuan dago bere nortasuna beste abenden artean galtzeko. Izkuntza asko itzali dira mendeen bidean. Euskera ere lehenago askoz gehiago edatua izan da. Naparroa osoan euskeraz hitzitzen zuten euskeraz eta hango errege Santxo Jakintsuak euskerari «Lingua Navarrorum» izena ipini zion. Zorizarez, azkeneko mendeetan, batez ere XIX garrenean, atzeraka haundia egin zuen eta gaurko egunetan hil-zorian arkitzen da. Horra zergatik euskera maite dugun euskaltzale guzientzat txit pozgarria dan ikustea, nola gaurko egunetan euskotarren artean, batez ere gazteen bihotzetan, euskera bizkortzeko gogo sutsua sortu dan. Euskal-erri osoan euskal-ikastolak eta ikastaroak antolatzen dira eta uste dut lan merezgarri honek euskeraren etorkizunarentzat igali ederrak ekarriko dituela.

Izkuntza bat ongi ikasteko, batez ere irakaslerik gabe, bearrezkoa da ikasbide egokia eukitzea. Nere lanmai-gainean daukat honelako ikasbide berri bat, «Euskera, hire laguna!» izenekoa. Liburu honen egilea Altuna Patxi da. Euskaltzaleen artean ongi ezaguna den euskal-idazle trebe honen artikuluko sarritan irakurtzen ditugu euskal-aldizkarietan. Hizkuntzen irakaslea da Donostiako E.U.T.G. izena duen ikastegian ta horregatik oso aukerakoa honelako liburua idazteko. Gaur-arte agertu diren bere ikasbide berriaren lehenengo zati biak nere liburutegian daukat eta asko gustatzen zaizkit. Nere ustez euskera ikasteko «metodo»-en artean onenetakoa da. Egile berak hitz-aurrean dionez «Present day english for foreign students» deitutako liburuz baliatu da. Ez dut liburu hori ezagutzen hala ere uste dut —eta hauxe Altuna Aitak ere dio— ikasbide bikain bat dela.

Orain zenbait liburu berriari buruz. Lehenengo zatiak 261 orrialde ta 25 ikaskai eta bigarrenak 278 eta 15 dauka. Ikaskai bakoitzaren barnekoa hauxe da: Eguneroko bizitzatik artutako gai bat, gero gai honi buruzko elkar-izketa, esaerak eta galde asko erabiltzen den gaia osoki nausitzeko. Euskal-elizti edo gramatiak ere bere tokia dauka, lehenengo zatian bi ta bigarrenean hiru «Elizti-Jaburpen» arkitzen dira, eta azkenean hitz guzien hitzietan. Guziaz euskeraz idatzita dago eta erdera ez da agertzen hitz-jenki baizik. Ikaskai bakoitza marrakiti ederrarekin apainduta dago.

Euskera ikasi nahi duten euskaltzaleak, orain lagun on bat dute. Beaz, tori eta ekin lanari.

NORBERTO TAUER

«EUSKERA, HIRE LAGUNA!»

Lehenengo ataletik bigarren atal huntara, aurrerapen bat ikusi uste dut P. Altuna-ren ikaspidetan. Hizkeraren eta idazkeraren aldetik, egileak bide erdira jo du; eta euskera osotua lortzekotan saiatu da, arrakasta haundirekin gure ustez.

Lehenengo liburuari buruz esan genuenak, bigarren huntaz ere balio dezake zenbait alderditatik. Irudien egitura eta itxura, esate baterako, guztiz egokia da: A. Altuna-ren ikaspidetan gure hizkuntza kaletartu egin da; eta ba du beharra, Euskal Herria bera kaletartzen ari baita.

Pedagogiaren aldetik iriziti bat ematea zailago zait. Arian agertuko da ongienik puntu hau. Baina hitz-aurrean aipatzen dan Frank Candlin jauna, oso ezaguna da inglesera ikasten eta erakasten dutenen artean. Ikaspideta, jakina, guztiz da plegu modernukoa.

Alkarrizketa eta irakurgai gisa A. Patxi Altuna-k hautatu dituen gaiak, oso dira, nere ustez, egokiak. «Un homme et une femme» mintz gogoan-garriari buruz solas batzuk ipintzea, oso asmo ona izan da. Euskaldunok, guriak guziaz bezela, gure mendeko seme baikera; eta ez pikuaeren adaburuen bizi geran mamu batzuk.

Esaera jatorrak bi ilaratan, eta alkarren ondoan beraz, ezartzea ere, oso argibide ona dala pentsa ditek: 123-gn. horrialdean, gonbarazio batarako, A. Altuna-k ematen dituen adibideak, garbi baiño garbiago agertzen dira.

«Hika»-ri buruz (ikus 54 eta 55 horrialdeak, esate baterako) ikaspide zuzena ematen du egileak gehienetan. Zergatik, ordea, «nik ez bait diat» (54) bitxi hori, (eta ez «ez bait dut»)? Gauza bera «hintzenan» harrigarri hortaz (182) (eta ez «hintzan»)?

Puntu batzutan A. Altuna-k gipuzkeraren esaera mordoilo batzuk onartuz, euskal muina alde batera uzten du. Zergatik «Yon'ek ezagu zitzaela nahi nian» (56), eta ez «ezagu zitzen»? Indefinitoaren gure estructures bidez ere berzientetako bat izaki, huni buruz erderakadak ontzat ematea ez zait bidezkoa iruditzen. Zergatik «zer hizkuntzetatik» (138), eta ez «hizkuntzatik»? Zergatik «zenbait gauzetan» (156), eta ez «gauzetan»? Zergatik «hamabost kilometrorra» (73), eta ez «kilometrotarra»? Euskaltietan jatorrena gipuzkera dan iriziti famatu hori erazteko garaia da: gipuzkera ez da askotan gidaririk ziurrena.

Nork ukatuko, halere, akats hauek aipatuagatik ere, euskeraren ikaspidetan artean A. Altuna-rena dala atseginena eta, punturik gehienetan, arras jatorra eta funtsezkoa?

Bijaotziko egileari gure txalorik beroenak.

LARRESORO

«HUTS» ERTI-LEKUAN

“Groupe recherche d'art visuel”



Artistaren jokabideari eta erantzukizunari dagohienez, gaurko arazoa sakona ta garantzikoa da. Urratzek urrats, ekingiz eta egoera berriz hari da erkitintza aurreratzen. Ertiprolema ez da gaur egun joera batzuen berreko soil: ez dago besterik. Bi talde bereziren problema da: batetik, jakinaren gainean edo eharkeabeen gaurko gizarteari itsasirik daudenak, bere hertan eusteko; eta jakinaren gainean edo eharkeabeen gaurko egoera eten nahi dutenak, bestetik. Eta ez zenbait al-daketa bakarrik; funtsezko eta benetako aldaketak baizik.

Honela hitz egiten digute «Groupe recherche d'art visuel» izeneko taldea betetzen duten ertilari famatuak. Julio Le Parc, Jean Pierre Yvaral, Horacio Garcia Rossi, Hugo Demarco, eta Sobrino ertiliarik osatzen dute talde hau. Lenengoak Venezian Sari Handia irabazi zun 1966-garrenean.

Donosti-ko HUTS erti-lekuan ezarri dituzte bere lan bikainak. Eta euskeraz egin digute bere aurkez-agiria. Zorionak talde jator onen lagunerik.

EUSKAL IDAZZALEEN LORATEGIA

Borondate ona bainan eskuak hustik ez da aski harroka gaitza bere zimendutik ateratzeko. Konpresorak eta petarduak ere behar izaten dira bidearen urratzeko. Tresnarik gabe, lanabesarik gabe, efikaziarik ez.

Ikastolak, alfabetatzea eta batasuna direla-ta, autoreak eta beste euskalkiak ezagutu behar direla esan eta ari gure etan gabe. Bainan ondoren galdera bera entzuten dugu beti: —Eta autore horiek non? Eta bere hortan gelditu ohi gera gure ezinean tinkaturik ondorengo pausorik gabe. Palankarik ez oztoto latz hori batasunaren bide bihurrietatik baztertzeko eta amiltegitira botatzeko.

Ba dakigu onen-onena autore ho-

riek oro berrito oso-osoki argitaratzea litzakeela. Hori, ordea, ez dago gauetik goizera egiterik, eta gainera, eginik ere, garestia litzake gazteriarren sakela sofrituarentzat. Aukerakera bakarra zati hautatuak argitaratzea da. Eta hauxe da Karmelo Etxenagusiak egin duena bere «Euskal Idazleen Lorategia» taxutzean. Argitaratzailea HEGOSA izan da.

Lorategi hau ahalik eta lasterren Euskal-Herri guzian zabaldu behar da. Datorren udazkeneko ikastaroa hasi orduko denon eskuetan behar dugu!!

Antologia bat egitea lan zaila da. Aukera bat egin beharra dago eta

ezin, bada, guzian gogoia ase. Batzuek zaharrak nahiago litzuteke, besteek «garbiak» eta «landuak». Gogoan dezagun, ordea, lorategia ez dela lore bat, mordoia baizik eta mota ugarien ageribide nabarra, irakurleak autoreak ezagutu ditzen. Horregatik denetik sartu beharra dago.

Literatura guzietatik dituzte beren antologiak. Batzuek zabalagoak, konstiturako eginak, beste batzuek sakelaren eramateko moduko laburpen motzak. Munduan den zaharrena Shi-King izenekoa bide da. Bost liburu horietan Konfunziok Txinako klasiku onenak bildu zituen. Greziatarrak, erromatarrek, arabiatarrak... denek antolatu zituzten beren lorategiak. Gaurkoek zer esanik ez. Izan ere, literaturaren kondaira, idazleak, eta izelgiak ezagutarazteko ez dago beste biderik.

Lorategi huntan mugaz hunaidiko prosistak daduzkagu. Prosistak, poetena lehenik ere A. Onaindiaren «Milla Euskal Olerki Eder» liburua bai baigendukan. Bestaldekorik Axular bakarrik agertzen da, berez mugakoa baida. On litzake ere gure artean Lafitteren «Euskaldunen loretegia» inprimatu baledi antologia biek alkar osatu dezaten.

Etxenagusien bildumak hasiera-hasieran zenbait herri-ipiun, erre-frau eta antzinako kristau-dotrinan zatiak dakarzi. Ondoren berrogei ta zortzi idazleen zatiak.

Liburua idazleak eta euskalkiak ezagutzeko bide bezala dago egokituena. Hortarako zati bakoitzaren hasieran nota bat dakar labor bezain taxuz egina idazlearen berri emana, eta ondoren hiztegi bati irakurketan laguntzeko. Liburuaren ba-kaeran ere beste hiztegi bat dakar liburuan zehar agertzen diren hitz zailtxoen osatua. Guzira hirurehun horri dira, eta arras itxura txukunean dator.

LETAMENDIAK

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5

TELEFONO 22440

Onen ajentziak erri auetan dituzte:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Mertzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerin, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Berriain.

Agencias:

Tudela, Villeva, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerin, Ochagavía, Carcar, Olazagutia, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Berriain.

o y a l s. a.

Oyal eta eforru almagena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA